

AKTA

ZEHAZTASUNAK • IDENTIFICACIÓN DE LA REUNIÓN

Bilera Reunión	Informazio saioa Sesión informativa			Bilera-zenbakia Nº de sesión	1
Tokia • Lugar	Osoko bilkuren aretoa / Salón de plenos				
Eguna • Día	2020-12-02	Hasiera-ordua Hora inicio	18:30	Amaiera-ordua Hora finalización	19:40

Bertaratuak • Asistentes

Herritarrak / Ciudadanía

Udal ordezkariak / Representación municipal:

Parte-hartze saileko teknikaria ere badago.
Asiste, asimismo, el técnico de participación,

AZTERGAIK • ORDEN DEL DÍA

BAKARRA.- Haurreskolaren prozesu parte-hartzailea aurkeztea eta alternatibak azaltzea.

ÚNICO.- Presentar el proceso participativo de la haurreskola y explicar las alternativas.

Lehenik eta behin, udal-ordezkaritzak eskerrak eman dizkie bertaratutako pertsonei, eta parte hartzeko prozesuaren eta, bereziki, saio honen dinamika aurkeztu eta azaldu du. Horren helburua haurreskolarako dauden alternatiben berri ematea izango da, bakoitzaren ezaugarriak, indarguneak eta ahulguneak azalduz. Era berean, nagusi den iritzi orokorraren hurbilketa txiki bat egingo da, baina eztabaida erabakitzailea hurrengo saioan izango da.

Jarraian, dauden aukera guztien azalpen teknikoa ematen da.

Azalpen teknikoa amaitu ondoren, bertaratutakoek zalantzak eta gogoetak planteatzen dituzte. Lehenik eta behin, adierazi da 0 aukerak (ezer ez egitea eta, ahal den neurrian, Agirre Lehendakariaren plazako instalazioak hobetzea) ez duela inola ere konbentzitzen, eta nola edo hala saihestu egin beharko litzatekeela. Halaber, galdetu du ea nola bultzatu 1. aukeraren matrikulazioa (Bizkai deskongestionatzea, Olabarrietan Katamar erabiltzea sustatuz) Katamar haurreskolan.

Horri udal-ordezkaritzak erantzun dio ez dagoela erabat zehaztuta, baina konbinatu daitezkeen hainbat bide egongo lirakeela: Katamarren matriculatzeko pizgarriak izatea, mugikortasuna erraztea.

Bertaratutakoek esan dute Katamar sustatzen saiatu direla, baina zaila dela, zentroko jendea autoaren mende egongo litzatekeelako. Katamarren izandako matriculazioen jaitsiera hainbat faktoreren ondorio izan da eta, hain zuzen ere, Bizkairen existentzia da horietako bat. Katamarren erabilera Olabarrietan eta inguruetan susta liteke, inguruko jende askok ez baitaki Katamarren berri. Horretarako, inguruan publizitatea egin daiteke, patioa hobetu, goiko aldeari erabilera eman erakargarriagoa izan dadin, eta haur eskola txikiago batek bere abantailak dituelako ideia indartu daiteke.

Bertaratutakoek ere adierazi dute kantxa anitzeko aukera, azkenean bi pisu izango balitu, ez litzatekeela oso egokia izango. Aparkalekuaren aukera interesgarria da, eta Agirre Lehendakariaren plazan bertan haurreskola zabaltzeko aukera ez da egokia, plaza oso gainezka dagoelako. Are gehiago, egungo kokapenak egiturazko gabezia gehiegi ditu eta ez dago zabaltzen ibiltzeko moduan.

Bertaratutakoek galdetu dute zenbat gela dauden kantxa anitzeko eta Lapurdiko aparkalekuko aukeretan, eta erantzun zaio egungoaren bikoitza dela.

Azkenik, udal ordezkariak adierazi dute posible dela aukera bakoitzari buruz dauden iritzia idatziz uztea, eta labur-labur aurreratu dute abenduaren 10eko hurrengo bileraren dinamika zein izango den.

Eta aztertzekeo besterik ez dagoela, bilkura amaitutzat eman da.

En primer lugar la representación municipal agradece la presencia de las personas asistentes, hace la presentación y explica la dinámica del proceso participativo y de esta sesión en particular, la cual tendrá por objeto informar de las alternativas que existen para la haurreskola, poniendo de manifiesto las características, fortalezas y debilidades de cada una. De igual modo, se hará una pequeña aproximación de la opinión general imperante, pero el debate decisorio se dará en la próxima sesión.

Seguidamente, pasa a darse explicación técnica de cada una de las alternativas existentes.

Una vez finalizada la exposición técnica, las personas asistentes plantean sus dudas y reflexiones. Se comenta en primer lugar que la opción nº 0 (no hacer nada y mejorar en lo posible las instalaciones de Agirre Lehendakariaren plaza) no convence en absoluto, que habría que evitarla en todo caso. Se pregunta, asimismo, por cómo impulsar la matriculación de la opción nº 1 (descongestionar Bizkai potenciando el uso de Katamar en Olabarrieta) en la haurreskola Katamar.

A ello la representación municipal contesta que no está definido del todo, pero que habría diversas vías que se podrían combinar: incentivos a la matriculación en Katamar, facilitar la movilidad...

Las personas asistentes comentan que ya se ha intentado fomentar Katamar pero que es difícil porque la gente del centro dependería del coche. La bajada de matriculaciones en Katamar se ha debido a varios factores y, precisamente, la existencia de Bizkai es uno de ellos. Sí que se podría fomentar el uso de Katamar en Olabarrieta y alrededores porque hay gente de la zona que ni está al tanto de la existencia de Katamar. Para ello se podría publicitar en la zona, mejorar el patio, dar uso a la parte de arriba para hacerla más atractiva y es posible potenciar la idea de que una haurreskola más pequeña tiene sus ventajas.

Las personas asistentes también señalan que la opción de la multicancha, si finalmente tuviera dos pisos, no sería muy adecuada. La alternativa del parking resulta interesante y la opción de ampliar la haurreskola en la propia Agirre Lehendakariaren plaza no es adecuada porque la plaza ya está muy saturada. Además, la ubicación actual ya tiene demasiadas deficiencias estructurales como para andar ampliándola.

Se pregunta por parte de las personas asistentes sobre el número de aulas en las opciones de la multicancha y el parking de Lapurdi, a lo que se responde que el doble de la actual.

Finalmente, la representación municipal indica que es posible dejar por escrito las opiniones que se tengan de cada una de las opciones y adelantan brevemente cuál será la dinámica de la próxima reunión el día 10 de diciembre.

Y sin nada más que tratar se dio por finalizada la sesión.